

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Erabiltzaile guztiak webgunean erregistratu beharko dira *gmail* edo *facebook* bidez eta beraien kontu propioa edukiko dute. Bi kontu desberdinen artean aukeratu beharko dute bezeroek. Lehena dohaineko kontua; honek aukera gutxiago edukiko ditu eta funtzio batzuk mugatuta egongo dira. Bigarrena “premium” kontua; honek aukera zabalagoa emango diete erabiltzaileei hilabetero ordaindu beharreko kuota baten truke. Kontu premium honek 5€ inguru balioko du. Prestazio gehiago izango ditu, funtzio gehiago eta beherapenak lan desberdinetan; baina bezeroek kontu korrontearen zenbaki bat sartu beharko lukete aurrera eramateko. Prestazio horien artean, gai horretan espezializatua den pertsona baten iritzia izango dute eskura. Beste abantailetakoa bat iragarkien ezabapena izango da.

Kanaletan azaldu dugun bezala, harremanak interneten bidez egingo dituzte, gainera plataforma berezi bat izango dute harreman zuzena izan dezaten erabiltzaileekin, arazo bat izanez gero. Funtsean ez daukagu erabiltzaileekin harreman handirik izateko beharrik, plataforma nahiko autonomoa izango da eta. Erabiltzaileek beraien artean izango dute harremana, baina aroazorik ez baldin badute beraien artean, ez dute beharrik izango gurekin harremanetan jartzeko.